

## ERANSKINAK

### 1. Eranskina: Irakasleei egiteko elkarrizketa

Elkarrizketa honek barne hartzen dituen galderak sortu ahal izateko, irakurritako bibliografian oinarritzea beharrezkoa izan da, lanean zehar jorratzen den gaiaren inguruko informazioa, iritziak edota datuak jaso ahal izateko. Modu berean, galderetan islatzen diren ideiak eraikitzeke erabili den bibliografia ofizialki onartuta eta publikatuta dauden artikuluetatik eta liburuetatik eskuratu da, unibertsitateko liburutegian eta interneteko datu baseetan bilatu delarik.

- 1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela? Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?
- 2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberrantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?
- 3- Uste duzu erlazioen bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?
- 4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?
- 5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?
- 6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraiei botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraiei aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?
- 7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?
- 8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasleen errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?

## 2. Eranskina: Irakasleen erantzunak elkarrizketetan.

### *ELKARRIZKETA: LEHENENGO TUTOREA LH 1*

---

#### **1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela? Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?**

Zalantza barik, gurasoak dira errendimenduan gehien eragin dezaketenak umeari. Eskolari delegatu zaio gehiegi errendimendu hori hobetzeko eginkizuna, baina guztiz oinarrizko diren aita eta amaren pertzepzioak, ezkorrak edo kontrakoak direnetan adibidez, nekez zuzentzen ditu eskolak. Seme-alaben ikasketak profesionalen esku uzten dituzte etxekoek, eta ez dira beti jabetzen zein gauza delikatu eta garrantzizkoa delegatzen ari diren. Eskola eta familiaren arteko elkarlana asmo ona den arren, kasu askotan gurasoen bigarren mailako inplikazio horrek problemak sortzen ditu. Adibidez, etxerako lanak karga baten moduan hartzen dituzte edota oparien bidez motibatzen dituzte seme alabak. Guraso batzuk ez dute txipa aldatzen gurasoa izateak ekartzen dituen erresponsabilitate eta ondorio guztiak beraien gain hartzeko.

Etxekoen harremanetan osasuna edo oreka izatean errendimenduan nabarmen eragiten du. Ikasleak bere buruarekiko konfiantza eta estimua garatu behar ditu. Sentimenak adierazten jakitea etxetik eragiten den kontua da, berdinen arteko harremanetan aurreratzeko ezinbestekoa.

Bestalde, bada umearen hazkundera beldurrez eta arriskuz beterik ikusten duen hainbat guraso. Beharbada beren ikasketa garaian ere ez zen behar beste arrakasta lortu. Gurasoek bere garaian izandako hutsuneak ez ote dira berragertzen? Aita eta amaren artekoak zer sendotasun duen ere, euren rola eta jarrerak guztiz erabakigarri gerta daitezke umearen etorkizun akademikoan. Egunero ikusten dut edozein pitxikeria izugarritzko problematzat hartzen dutenena, frustrazio txikiena ere bizi ezin dutenena. Arlo pertsonal horretan eskolak ahaleginak egin arren etxetiko "heziketa" da klabea: sentipenak, adorea, poza, osasuna, ilusioak... mundura ekar zintuztunen esku dira gehien bat.

**2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?**

Bada errendimendua hobetu duenik. Normalean, fonemen ikasketan adibidez, ezinean edo itota ikusten dugun umearen aurrean, etxekoekin harremanetan jarri eta ezkortasuna edo burumakur dagoen ikaslearen autoestimua edo norbere gaitasunenganako konfiantza altxatzetik abiatu behar da. Esfortzua emankorragoa bihurtzen da, gainditu beharrekoari arnas apur batez eta gauzak bere denboran kokatuz bideratzen dira askotan. Beste askoren kasuan erritmoak dira errespetatu behar direnak eta txiri-txiri hobetzen dira.

**3- Uste duzu erlazioren bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?**

Gutziz lotuta ikusten ditut norbere itxaropenak eta arrakasta. Errendimenduari ezin zaio eutsi zure buruan sinetsi ezean.

**4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?**

Autoestimua pertsonala handitzera jo behar da. Berdinen arteko harremanak hobetzeko teknikak landu. Hala ere, Autoestimu akademikoan batzuetan ikaslearen izaeraren arabera ezin da eragin. Haur batzuk goraiatzean animatu egiten dira baina beste batzuei berdin zaie goraiatu edo ez, berdin geratzen dira, edo lana guztiz ondo egon dadin zerbait ezabatu behar badute txartzat hartzen dute...

**5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?**

Ikasleak bere buruarekiko konfiantza agertu dezan, lotsak eta beldurrak nagusitu ez dakiozen, nagusien eskutik helduta joan barik, bere kasa moldatuz joan behar duela, bai denbora gaietan bai esparru aldetik.

Horrek nagusion pazientzia eskatzen du. Helburu argiak behar ditu irakasle eta gurasoen ekipoak. Giro desegokietatik urrun, motibatuz...

**6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraiei botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraiei aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?**

Zoritarrez markatuegi bideratzen dugu eguneroko ikaskuntza. Ideiak politikak dira, teoria asko dakigu baina estresatuta garenok nekez zabalduko dugu patxada. Irakasle on eginkizun klabea etengabeko prestakuntza izan beharko zuen. Baina ez dut ikusten hain antolatua hezkuntza sistema hori gauzatzeko.

**7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?**

Umore onez eta ikastera goazenak duen erabilera edo balioa aurrez ikustaraziz. Ikasi dutenek laguntzaile egiten ditut eta horrek ere motibatzen ditu, dena den 6 eta 7 urtekoei buruz ari naiz eta adin bakoitzarekin pixka bat desberdina da.

**8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasle on errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?**

Familiak ahal eta nahiko lukeen inplikazioa agertu behar du nire ustez. Beste kontu bat da ezintasunak aurreikustean denok eta beste profesional batzuk ere sartu behar izaten dugu. Gizartean umeen prestakuntza akademikoari aurre egiteko plangintzak gauzatzeko ezinbesteko lan politikoa bihurtu beharko litzateke, behetik gora, herrigintzaz.

**ELKARRIZKETA: BIGARREN TUTOREA LH 1**

---

**1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela? Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?**

Bai, guztiz. Uste dut gurasoengandik motibazioa jasotzea ezinbestekoa dela ikaslearen errendimendurako. Ikasleak bere familia ondoan dagoela sentitu behar du, horrela bere eguneroko zailtasunak gainditzeko gai izanik.

**2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberrantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?**

Bai, konkretuki ikasle bat izan dut oso deigarria izan dena. Hasieran, jarrera ezkorra eta txarra zeukan eta emaitza baxuak izaten zituen, zigorrek ez zuten ezertarako balio izan. Beranduago, ordea, motibatzearen bidetik jo nuen eta ezberdintasuna itzela izan da. Orain, konfiantza handiagoa du berarengan eta, emaitzek ere, gorantz egin dute. Aldaketaren arrazoia zera izan da: errefortzu positiboek eragin handiagoa izan dutela umearengan zigorrek baino.

**3- Uste duzu erlazioen bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?**

Bai, erlazio osoa. Ume batek bere burua alferizat edo ezgaitzat ikusten badu, nekez izango ditu emaitza onak, aldiz, berarengan ziurtasuna badu errazagoa izango da arrakasta lortzea.

**4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?**

Zaila da hau erantzutea, uste dut teknika horiek urteekin ikasten direla, praktikarekin. Ni hasiberria naiz tutore bezala, baina orain arte egindakoa ikusita, esango nuke inportantea dela zorrotasuna eta malgutasunaren arteko puntua lortzea. Horrez gain, ezinbestekoa dela umeak hasieratik motibatzea etiketarik jarri gabe eta diren bezala maitatuz. Familiek ere, antzeko eginbeharra hartu beharko lukete, beti ere zentroarekin kontaktuan egonik.

**5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?**

Ezin ditugula ikasleak gehiegi gidatu geure modura. Irakasleon helburua, ikasle autonomoak heztea da, etorkizunean euren kabuz jarduten dakitenak, beraz, gehiegi lotzea kontraesan bat izango litzateke.

**6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraiei botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraiei aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?**

Nire kasuan ikasle txikiak dira eta oraindik nahiko heldugabeak, (6-7 urte) baina euren adinerako aproposa den ahalik eta autonomia gehien ematen saiatzen naiz: proposamenak botatzea, haien iritzia konpartitzea, erabaki batzuk hartzea, erantzukizun txikiak eskatzea eta abar. Modu honetan, haiek ikusten dute nik haiengan konfiantza dudala eta baliagarriak sentitzen dira.

**7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?**

Nire ahotsaren tonua aldakorra izatea saiatzen naiz, gauza batzuk ipuin bat izango balira bezala kontatzen ditut, euren eguneroko aspektuekin harremana ezartzen dut haien interesa pizteko...

**8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasleen errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?**

Funtsezkoa da eskola eta familiaren artean etengabeko interakzio bat egotea. Familiek kolaboratzen ez dutenean nabaritu egiten da ikasleen errendimenduan. Noski etxerako lanak egiten lagundu behar dietela, baina hortik askoz haratago doa, eskolaren dinamikan inplikatu behar dira.

***ELKARRIZKETA: HIRUGARREN TUTOREA LH 1***

---

**1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela?  
Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?**

Nik uste dut umeen eta gure ikasleen erreferentea haien gurasoak direla eta orduan haiek esaten dizkieten gauzak oso baliagarriak direla haientzat. Gurasoek haien lana baloratzen badute eta gauzak zein ondo egiten duten esaten badiete behin eta berriro, umeak poztu egiten dira eta askoz hobeto egiten dute lan, hori ondorio zuzena da. Hitzen eta ekintzen bitartez eragin daitekeela uste dut, Adibidez “oso ondo primeran egin duzu txapeldun!” zorionduz esanez eta ilea laztantzea beraienezako animo izugarria da. Hau andereñoak edo gurasoek egin ditzakete. Adibidez, etxera karpetan klasean egindako zerbait eramaten badute eta gurasoek zein polita den esaten badiete, eragin handia du eurengan. Horrek zeregin handia du oraindik gure gizartean.

**2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?**

Ikasgelan errendimendu baxua duten ikasle batzuk izan ditut, eta horiek hoberantz egin dute ohar positiboek esker, gurasoekin agendaren bidez hitz eginez beraien jarreraren berri emateko eta lanak egiten dituenaren berri emateko. Momentu honetan, oharrak agendaren bitartez etxera bidaltzen dizkiodan ikasle bat dut. Ikasle honek besteak jotzen ditu eta ikasteko orduan ere jarrera txarra du. Arazoa da, ume honek arreba txikiago bat duela eta badirudi honek dena txarto egiten duela eta arrebak dena ondo. Amarekin hitz egin nuenean errealitate hori transmititu zidan, hau da, umeak hori duela barneratuta, “ni naiz dena txarto egiten duena eta nire arreba txikiak dena ondo”. Esan nion komenigarria zela niri egunero agendaren bidez ohar bat bidaltzea nire ikasleak egin duen gauza on batekin eta primeran funtzionatu du. Ohar guztiak positiboak izan dira, ez bazegoen oharririk, gauza onik egin ez zuela esan nahi zuen. Ohar mota horiek ez ziren soilik esparru akademikoan zentratzen, jarreretan baizik. Adibidez, gaur dena gosalduta, txapeldun bat da, amantala primeran jantzi du...

### **3- Uste duzu erlazioren bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?**

Noski, nik uste dut erlazio zuzena dagoela. Ikasle eta heldu batek duen autokontzeptua guztiz funtsezkoa da bere eguneroko jokabideen aurrean. Zuk uste baduzu hori ez dakizula egiten, ez zara saiatuko eta ume batek berdin egiten du. Mezu hori sartuta badu ez du ahaleginik egingo hori aldatzeko. Guk hori bai aldatu ahal diogula pentsamendu hori ahalik eta gehien minimizatuz. Adibidez, ume batek klaseko motelena eta azkena dela uste badu, guk zera esan ahal diogu: “Nik uste dut gaur gutxienez azken aurrekoa izango zarela, ez zara azkena izango.”

Egia da askotan zailtasunak dituztela eta duten autokontzeptu hori ez dela asmatutakoa, hau da, beraien bizipenen ondorioz sortutakoa da. Erritmo motela badu, nik ezin diot esan “ziur nago gaur lehenengoa izango zarela”. Espektatiba altuegiak ipintzen badizkiozu, porrota edukitzeko aukera oso altua da. Gauza da pixkanaka berari konfiantza ematea “gaur gutxienez azken aurrekoa izango zara edo agian gaur hobeto egingo duzu”.

Nik uste dut askotan, gurasoek hori ez dutela ulertzen eta ez dutela kontuan hartzen. Ez dakite beraien seme alabak noraino heldu ahal diren. Ni ere ama naiz eta noski gustatuko litzaidakeela nire semea ingeniaria, medikua edota arkitektoa izatea. Baina batzuetan, hori ezin da eta agian ezin da heldu. Orain dela gutxi, gertatu zait ama bati esan behar izan diodala agian bere semea ezin izango dela heldu berak nahi duenera. Egin ahal duen baino gehiago eskatzen badio, umea blokeatzen da eta ez du aurrera egiten.

Nik ez dut esaten batzuk ezin direla heldu, baizik eta argi dagoela gauza batzuk ezin direla egin. Bakoitzaren ezaugarriak eta ahalmenak onartu behar dira eta gurasoak errealistak izan behar dira ikasleen autoestimua lantzeko eta horrela irakaskuntzan errazago aurrera egiteko.

### **4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?**

Komentatu dizudan moduan, zorionduz lortzen dira gauzak. Zoriontze hori lortzeko borrokatzen dute eta hori lortzeko animatzen dira. Egiten duten gauza baten ondorioa positiboa bada, hori onartu behar dugu. Familiek gauza bera egin beharko



lukete nire ustez. Horretaz aparte, batzuetan lan egin behar dute beraiekin, eta hor sortu ohi dira gatazkak exigentzia mailagatik eta aurretik aipatu dudanagatik.

**5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?**

Nik uste dut, pertsona bere osotasunean garatzea edo heztea dela. Hau da, umea autonomoa izan dadin saiatu behar gara berak dituen ezaugarri guztiak aprobetxatuz eta gizartean sozializatuz.

**6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraiei botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraiei aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?**

Talde lanen asuntza nire kasuan nire taldearen ezaugarrien ondorioz, nahiko zaila egiten zait praktikan jartzea nire ikasleek taldeka lagunekin lan egitea baino, jolastu nahi dutelako. Hala ere, horrek ez du esan nahi hau alde batera utzi behar denik. Taldeko ezaugarrien arabera da eta nagusiekin erabiltzeko komenigarria. Nik uste dut autonomia oso garrantzitsua dela guretzako, ikasleentzako eta gurasoentzako ere bai. Zenbat eta autonomoagoak izan, gero eta lan gehiago kentzen digute guri, noski. Liburuko orrialde bat beraiek bakarrik egin dezakete, adibidez, behin azalduta dagoela. Hala ere, irakaslearekiko dependentzia handia erakusten dute, lanak bukatzen dituztenean edozein mailatan beti doaz irakaslearengana bukatu dutela esanez. Nik aurka-apurka autonomia ematen diet erantzukizunak beraiei esleituz.

Gero ere, beraien irudimena garatzen uzten diet. Beste egunean, adibidez, ikasle batek eskulan polit bat egin zuenez, plastika orduan hori egitea bururatu zitzaigun, horrela beraiek beste norbaiten menpe ez daudela ikusten dute eta baliagarriak sentitzen dira. Dena den, uste dut autonomia utzi behar diegula, baina limite batzuk eta arau batzuk argi utzi behar dizkiegula.

Adibidez, beste egunean, ume batek lan bat bukatu ostean liburu bat irakurri ahal zuen galdetu zidan eta ezetz esan nion. “Zergatik andereño?- Bueno lehenik eta behin nik esaten dudalako laztana.” Badakit gaizki eginda dagoela ikasle batzuekin “nik esaten dudalako” esatea, baina batzuei esan behar zaie etxean ez dutelako hori lantzen. “Hemen ezin da zuk nahi duzuna egin, badakit orain liburu bat irakurri nahi duzula

baina zure lana bukatu baduzu, pozten naiz, zorionak oso ondo egin duzu zure lana baina orain pazientzia izan behar duzu besteok bukatu arte.” Ikastolan itxaroten ikasi behar da.

### **7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?**

Motibazio hori animoetan oinarritzen dut gehien bat:

- “Nagusiak zarete, badakit primeran ikasi duzuela. Oraingoan pixka bat zailagoa izango da, baina ziur nago gustatuko zaizuela eta gai izango zaretela.
- Klasera norbait sartzen denean zein langileak diren esaten diot.

### **8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasleen errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?**

Familiaren inplikazioa funtsezkoa da eta askotan ulertzen ez dutena da, familiak eta eskolak batera egiten dugula lan, ez gaudela haien kontra eta ez ditugula gurasoak etsai bezala ikusten. Aitzitik, umearen garapenerako egiten dugula lan, umearen onerako.

Ni tutorea naiz aurten lehen aldiz eta irakasle askok esan didate behin eta berriro: “Ai ama, ikusiko duzu zer den gurasoekin hitz egitea!”. Nire ustez, gure artean zurrumurru bat finkatu dugu eta gurasoak otsoa izango balira bezala ikusten ditugu. Egia da, batzuk gure kontra egiten dutela, beraien semea hoberena dela uste dutelako, adibidez, baina nik uste dut edozein gauzari buelta eman behar zaiola. Guraso bilera batean esan nuen: “Niri bikainak ez dizkidate deskontatzen soldatetik, ez daukat inolako arazorik nota onak ipintzeko. Baina nik zuek izango banintz, kezkatuko nintzateke nire seme alaba autonomian, jarreran edo sozializazioan zer daramatzatenagatik” (ikasleak nagusiagoak izango balira, jarreragatik orokorrean esango nuke, adibidez). Guztiak egon ahal direlako edo portatu ahal direlako hobeto.

Gainera, suertatu daiteke ume bat matematiketan trebea izatea eta horri bikain bat exijitzea. Esan nahi dudana da, gurasoek duten txip horri ere, buelta eman behar zaiola eta gurasoak ere hezi ahal ditugula beraien seme alabekin dituzten erlazio horiek apur bat bideratzen. Hori, nire ustez, hitzaldien bidez eta guraso bilerak aprobetxatuz egin daiteke. Hau da, guraso bilera batean matematikan egingo dugunari buruz hitz

egitea ez dut uste beharrezkoa denik, izan ere, gurasoek liburua hartzen eta begiratzen badute argi ikusi dezakete zer egin dugun. Horren ordean, gurasoen bilerak psikologian gehiago oinarritu beharko lirateke, zer nolako autonomia eman behar dieten, nola lagundu ahal dieten, jarreretan nola esku hartu... ez bakarrik egingo dugunarekin. Familiei transmititu behar diegu hor gaudela, aitona hil bada edo dena dela, laguntzeko prest gaudela gure lanbidearen bidez.

**ELKARRIZKETA: LAUGARREN TUTOREA LH2**

---

**1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela? Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?**

Baietz uste dut. Adibidez, ume bat oso azkarra izan arren, familiaren aldetik ikasteko grina landuta ez badago edo lan egiteko ohiturarik ez badu, errendimendua eskasa izan daiteke. Aldiz, ikastea edo ulertzea pixka bat kostatzen bazaio baina etxetik lan egiteko ohitura eta laguntza badu, aurrera joan daitekeela eta emaitza nahiko onak izan daitezkeela uste dut. Hau dena, noski, ume bakoitzaren gaitasun maila kontuan harturik. Beraz, familiak eskaintzen duen laguntzaren bitartez eta ikasketekiko seme alabei transmititzen dieten ohituren bitartez eragiten dutela esan daiteke.

**2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?**

Bai, urtero izan ditut hoberantz joan diren umeak. Nire ustez, hoberantz joan dira lehenik eta behin, gurasoekin harremanetan jarri naizelako eta beraiei zein gauzak eta nola landu behar dituzten azaldu diedalako. Horrez gain, gelan ere ikasle horiekin lan intentsiboa egin dugulako ikastolan eta azkenik, jarraipen zuzena egin diogulako irakasleen eta familien artean.

**3- Uste duzu erlazioen bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?**

Bai baina autoestimu hori positiboa izan dadin lan egin behar dugu. Uste dut umeak motibatu behar ditugula eta asko animatu. “Bikain”, “Oso ondo” eta “asko ikasi duzu” esanez pasatzen dugu eguna eta horrelako esaldiek asko motibatu eta animatzen dutela uste dut, edozein adinetan.

**4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?**

Ume batzuek denbora gehiago behar dute gauzak ikasteko edo ulertzeko, batzuetan izaeraren arabera edo interesaren arabera izaten da... Dena den, lan handiagoa egin behar izaten dugu ume batzuekin besteekin baino: Beraiei gauzak behin eta berriro azaldu, beraiei gelan besteei baino gehiago gauzak galdetu edo egitera animatu, gure

ondoan ipini begi bistatik ez galtzeko, haiei lagundu bereziki zer edo zer egiten dugunean gelan, hobetzen dutenean beraiei jakinarazi zorionak emanez, edozein adinetan asko animatu (bigarren edota hirugarren zikloan adibidez zerbait gainditzen ez dutenean), familiarekin harremanetan jarri lehen bai-lehen, berarekin harremanetan jarraitu eta horri seme alabekin gaiak nola landu behar dituen azaldu...

Familiak adostutakoa bete behar dutela uste dut eta egunero etxeko lanak egin umearekin. Ikasleak nagusiagoak diren kasuan, horiek egiten dituztela kontrolatu eta dituzten zalantzetan lagundu behar dietela uste dut. Oro har, gurasoek umeei kontrol pixka bat egin behar diete eta ohitura onak hartzen lagundu. Izan ere, batez ere lehenengo zikloan, arin nabaritzen da ohitura onak eta txarrak hartzen ari diren ikasleak.

**5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?**

Ikasleei pixkanaka gero eta autonomoak izaten utzi behar zaiela. Lehenengo ziklora datozenean, ume asko autonomia gutxikoak izaten dira eta hori lantzeko, haien eskuetan utzi behar ditugu aukera batzuk edo lan batzuk egiteko aukera, hala nola taldeka edo binaka lan eginez.

**6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraiei botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraiei aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?**

Segun eta zer lantzen ari garen, eta zein mailan gauden, autonomia txikiagoa edo handiagoa uzten diet. Gehien bat, lanean hasi baino lehen eta irakurri baino lehen, beti galdetzen diet ea zer pentsatzen duten egin behar dela ariketa jakin batean. Horrez gain, haiek zer egin behar duten jakin ahal izateko, pentsatzeko eta irakurtzeko denbora uzten diet, gero, beraiek hipotesiak bota ditzaten.

**7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?**

Gai jakin bati buruz zer dakiten galdetzen diet. Gero, nik dakidan zerbait kontatzen diet eta ondoren, ea gehiagorik jakin nahi duten esaten diet. Beste batzuetan, ikasten gaudenari buruzko informazioa bilatzea eskatzen diet edo gelan bertan interneten bilatzen dugu gaiak bizitzan duen erabilgarritasuna edo inportantzia

erakusteko asmoz. Modu berean, askotan ikasten gaudena nagusiek egiten dituzten gauzak direla esaten diet garrantzitsuak sentitu daitezten.

**8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasleen errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?**

Ados egon behar gara gu, irakasleok, eta etxeok gauzak aurrera eta ondo joan daitezten. Ados jarri ezker, aurrera eraman behar da landuko den adostutako plana. Familia batzartu egin beharko litzateke beharrezkoa den heinean, baita irakasleak ere, zalantzaren bat sortzen denean. Ezinbestekoa da gurasoen inplikazioa eta gurasoen laguntza. Ziur nago, ikasle batzuen gurasoek haien seme alabekin inplikazio handiagoa eta laguntza gehiago izan ezker, ikasle horiek aurrera joango liratekeela. Gurasoen laguntzarik ez edukitzeak, asko murrizten du nik hemen egin dezakedana. Esan behar dut, gutxitan gertatzen dela hau, baina noizbehinka bai.

**ELKARRIZKETA: BOSGARREN TUTOREA LH2**

---

**1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela?  
Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?**

Nire ustez, familiak bai eragiten du ikasleen errendimendu akademikoan baina ez dira eragile bakarrak. Horrez gain, ikasleen izaera baldintzatzen dituzten faktoreak daudela uste dut, hala nola temperamentua, lotsatia izatea edo ez izatea, urduria izatea edo ez izatea... ere errendimendua baldintzatu ditzakete. Horretaz aparte, nire ustez familiek seme alabei ikasketekiko erakusten dieten motibazioaren bidez nahiko eragiten diete. Hau da, guraso batzuk semearekin mendira joaten badira eta bertako landareak edo intsektuak hartu edota elkarrekin ikertzen badituzte edo mendiko gauzak irakasten badiote, jakintza horiek ume horretan islatuko dira horrelako gauzak seme alabei irakasten ez dizkieten gurasoekin konparatuta.

**2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberrantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?**

Bai, arreta arazoak izan dituelako eta lan egiteko ohiturak ez dituelako izan. Hobekuntza horren arrazoiak, egunero arau batzuk onartzea eta estrategia batzuk bilatzea izan dira. Adibidez, badakite etxerako lanak egunero egin behar dituztela eta asko kostatzen zaien gauzaren bat badago, trukuak erabiltzen ditut. Esate baterako, matematika arloan oinarrietara abiatzen naiz eta biderketen kasuan, horiek buruz irakatsi beharrean, atzamarrekin egin daitezkeen trukuak edo arkatzarekin biderketak ulertzeko egin daitezkeen segidak zein beste idatzizko truku irakasten dizkiet. Idazketaren kasuan, hitzak txalokatzen ditut hitzak banatu ahal izateko, hile bakoitzak zenbat egun dituen jakiteko eskuak erabiltzen ditugu, eta aurreko guztia, errutinatzat hartzen dugu, erabat mekanikoa bihurtzen delarik.

**3- Uste duzu erlazioren bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?**

Bai, baina salbuespen batzuk daudela esan daiteke. Adibidez, Asperger duen ikasle bat izan dut eta ikasle honi lehen gauzak ateratzen zitzaizkionean isilik geratzen zen. Aldiz, orain ikasten doan heinean eta zerbait gaizki egiten badu gai da esateko sentitzen duena, eta batzuetan “irakasgai honetan txarra naiz” esaten du eta noski nik

beti animo positiboak ematen dizkiot. Honekin esan nahi dudana da, arazodun umeetan salbuespenak egon daitezkeela, askotan beraien burua nolakoa den eta zer sentitzen duten identifikatzeko arazoak izaten dituztelako.

**4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?**

Errendimendua hobetzeko ikasi behar dutena erraztu, oinarrizko gauzak sakondu eta akatsak egiterakoan oinarrietara joatea. Oinarrizko gauzak ondo egon behar dira ipinita. Familiek argi eduki behar dute zeintzuk diren ikasi behar dituzten gauza oinarrizkoak eta hortik aurrera ikasleen errendimendua aurrera joango dela uste dut.

**5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?**

Ikasleak autonomian hezi behar ditugula gero autonomoak izateko. Horrek ez du esan nahi egin nahi duten guztia egiten utzi behar zaienik. Baina bai, adibidez, proposamenak egiten. Lana binaka edo launaka egin, ez badakizu hemen nago ni azaltzeko, ez da ezer gertatzen ez bazaizu ateratzen, hemen nago ni zuri laguntzeko. Frustraziotik ateratzen lagundu behar diegu.

**6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraien botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraien aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?**

Proposamenak egiten utzi beti. Adibidez, ariketa batean zerbait idatzi behar denean proposamenen bat gustatzen bazait, proposamena bota duen umea izaten da klase osoari bertan idatzi behar dena diktatzen diona. Horrez gain, egunero ikasle bat klaseko arduraduna izaten da eta hainbat ardura ditu klasean: gailetak banatu jolastoki orduan, euskaraz nork hitz egiten duen kontrolatu, klasean zenbat gauden jantokiko langileari esatea, fotokopiaren bat egin behar bada idazkaritzara jaitsi eta abar. Batzuetan, ariketa batzuk lan kooperatiboa erabiliz egiten uzten diet ere bai. Honekin orokorrean, ikasteko ilusioa lortzen dugula eta errendimenduak gora egiten duela uste dut.



**7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?**

Azken finean, beraiei uzten diet ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren protagonistak izaten eta beraiei eskatzen diet dakitena besteei azaltzeko. Lekutik mugitzen ditut eta lurrean borobilean esertzen ditut arbeletik gertu berria den zerbait erakustera noanean, eta guztion artean ikasten dugu, dakiguna partekatuz eta ideiak botaz. Oro har, ideiak botatzen uzten diet, galderak egiten dizkiet, zoriondu egiten diet, ikasi dugun zerbait telebistan atera bada hori kontatzen diet eta ikusteko esaten diet, gurasoekin batera ariketa jakin batzuk egitea eskatzen diet. Hala nola, informazioa bilatzea eta maiz, etxerako lan moduan, ikasi dugun zerbait gurasoei azaltzea bidaltzen diet, gurasoak aho bete hartz geratu daitezten. Hurrengo egunean gurasoak aho bete hartz geratu diren galdetzen diet eta poz pozik eta harro sentitzen dira baietz esanez.

**8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasleen errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?**

Nik uste dut, etxerako lanak ea egin dituzten edo ez begiratu behar dutela, baina ez beraiekin batera egin. Eskolarekin beste espazio bat zabaltzen da elkarlanean ikasteko denok leku askotatik gauzak irakasten dizkigutelako. Eskolarekin parte hartzen, adibidez, irakasleekin harremanetan jartzen, ikuspuntuak eskolarekin adostu, zuk eskatzen baduzu klasean ondo esertzea hori irakatsi (eskolan eta etxean gauza berak exijitzeko edo eskatzeko). Hori da, nire ustez, eduki beharreko inplikazio maila.

***ELKARRIZKETA: LEHENENGO ZIKLOKO INGELESEKO IRAKASLEA***

---

**1- Uste al duzu familiek ikasleen errendimendu akademikoan eragina dutela?  
Horrela izatekotan, nola edo zeren bitartez uste duzu eragiten dutela?**

Noski baietz. Nik uste eta nire esperientziaren bidez ikusi dudanaren arabera, etxeko giroa oso garrantzitsua da eta umeetan hori argi eta garbi ikusten da. Adibidez, familia batean arazoak badaude giroa ona ez bada, beti istiluak badaude bertan, askotan ezin dut esan beti, baina askotan-, umeen errendimenduan ikusten da. Hala nola, umeak blokeatuta geratzen dira, triste egoten dira, arazo itzelak izaten dituzte... orokorrean hitz egiten nago, kasu batzuetan izan daiteke nahiz eta giroa txarra izan, umeak aurrera egiten duela baina nik uste dut gehienetan, umeen errendimenduan arazo horiek islatzen direla.

Beste alde batetik, familian giro ona dagoenean, eta familia horiek umeari laguntza eskaintzen diotenean, irakasleok hori umeen errendimenduan ikusten dugu. Etxerako lanak bideratzen lagundu badiote, ez egiten baizik eta bideratzen, hori kontrolatu duten nabaritzen da. Izan ere, gauza ez da gurasoek etxerako lanak egitea, gauza da, zerbait ez badakite argitzea edo egiten direla ziurtatzea. Askotan nik uste, hau da askotan gertatzen den arazo larri bat, guraso askok “ipini hau” esaten diete seme alabei eta umeak ipintzen du baina ez daki zergatik, ez du pentsatzen ezta ulertzen ere. Erratu behar bagara, gelan zuzenduko dugu. Hau, nire ustez, batzarretan konpondu daiteke. Gurasoei beti esaten diet, gauza ez da zuek etxerako lanak egitea, bideratzea baizik, agendan begiratu zer egin behar duten eta egin duten edo ez ziurtatu. Umeak pentsatu behar du eta bakarrik egin behar ditu. Beste gauza bat da umeak ikaskuntza arazoak dituenen. Hori beste kontu bat da.

**2- Zure ikasgelan denboraldi batean errendimendu baxua izan duen eta denbora tarte batean hoberrantz egin duen ikaslerik izan al duzu? Zeintzuk uste dituzu izan direla hobekuntza horren arrazoiak?**

Bai, izan ditut kurtso hasieran errendimendu oso baxua zutenek, gutxia eraman zutenek eta orain bigarren ebaluaketan gutxi bat eramatetik ondo bat eraman dutenek etxera. Zer egin dut nik? Lehenengo eta behin, gurasoekin hitz egin. Adibidez, ingelesean hilero gelan lantzen dugun istorioarekin hasi baino lehen, liburuxka eman diet aurretiaz etxean lantzeko CD-arekin batera. Nahiz eta hizkuntza ez ulertu, berdin

da, garrantzitsuena entzutea da, ohitura hartzea, irudiak ikusi eta hitzen esanahia identifikatzea. Horrela gero, gelan istorioa lantzen hasi garenean, bazekiten zerbait eta askoz errazagoa da beraientzat edukiak eta istorioa ulertzea. Guraso askok ez dakite ingelesa, beraz gurasoen papera kontrolatzea da, CD-a entzuten dutela kotxean ipini, etxean... Ondoren, horrez gain, fitxa berezi batzuk bidali dizkiet ume hauei, aurretiaz dena, gero gelan lantzerakoan aurreratuagoak egoteko. Aldaketa itzelak egon dira ume hauetan, gurasoak inplikatu baitira. Hauek ez dakite ingelerarik, baina kontrol hori ezarri dute eta ume hauek egundoko aldaketa izan dute.

### **3- Uste duzu erlazioren bat dagoela ikasle batek duen autokontzeptuaren eta haren errendimenduaren artean?**

Bai. Nik adibidez, badaukat ume bat ingelesean txarrena dela behin eta berriro esaten duena, eta hor geratu da blokeatuta eta ezin dut hortik atera. Umea bere arazoez aparte, ikaskuntza arazoak baititu, frustratua dago eta bere auto-konfiantza zero da. Guk irakasleok egin behar duguna, umea hortik ateratzea da, baina batzuetan oso zaila da. Izan ere, berak pentsatzen badu “nik ez dakit hau edo bestea egiten, ni txarrena naiz, gutxi bat aterako dut” azkenean dena sinesten du eta ez du aurrera egiten. Gauza da honakoa esaten diozunean, “trankil egon orain ez duzu ulertzen baina gero ulertuko duzu, landuko dugu eta gero dena ondo joango da” ume batzuei beraien egoera negatibotik ateratzea lortzen duzula, baina beste batzuekin ez duzu hori lortzen. Hala ere, gure esku dago frustrazio hortik umeak ateratzea. Baina ez gure esku soilik. Familien esku ere bai. Familiek horrelako gauzak esaten badiete “Zer da hau? Gutxi bat atera duzu, ez daukazu ideiarik bez! ze txarra zaren” eta begira zure laguna zein ondo egin duen!...” ez dugu ezer lortzen. Beraz, bion aldetik eman behar da.

### **4- Zure ustez, zer egin dezakegu edo zelako teknikak erabili ditzakegu irakasleok ikasleen errendimendua hobetu dadin? Eta familiek?**

Begira, adibidez, ikastola honetan, ingelera irakasteko erabiltzen dugun metodologia oso berezia da. Dena oinarritzen da irakaskuntza komunikatiboan. Proiektu bakoitzeko ipuin bat eta ipuin horren inguruan dena lantzen da. Batez ere, hiztegia eta estruktura gramatikalak. Hori guztia, antzerkien, jolasen, abestien eta rol playing-en bitartez lantzen da. Hau landuta dagoenean, liburuko fitxekin sartzen zara eta horiek ere bai oso aktiboak dira, kontuan harturik guztia aurretiaz era komunikatibo batean irakatsi dela. Horrela ikasleak ez dira lokartzen, ez da guztia liburua jarraitzen egin behar,

klaseak oso dinamikoak dira eta ez dago aspertzeko aukerarik abestiak eta antzerkiak egin behar ditugulako beste hainbat gauzen artean. Beraz, nik uste dut umeez honelako klaseak erakargarriak ikusten dituztela eta ondo pasatzen dutela. Nik teknika horiek erabiltzen ditut eta uste dut beste irakasgai batzuetan ere horiek erabiltzea ondo egongo litzatekeela. Adibidez euskarari, lehenengo mailan hilabeteekin daude eta asteko egunak txarto dakizkitez, esate baterako. Mila jolas daude, baina guztia liburuarekin errepikatzen baduzu, nire ustez, ez da hain ondo barneratzen. Piktogramak ere oso ondo etorri ahal dira ikasleen errendimendua hobetzeko. Kostatzen zaie asko laguntzen diezu, gustatzen zaizkie eta, nire ustez, oso garrantzitsuak dira. Familien inguruan aurretik aipatu dudana esango nuke, etxeko lanetan kontrol hori ezartzea eta ikasleak ikastera bideratzea, ez beraiek egitea. Besterik ez.

**5- Zer ulertzen duzu “autonomian edo autodeterminazioan hezi” terminoaren bidez?**

Gai bat lantzen gaudenean, nik uste, esan behar dugula “Ea erdi aroa, zer da? bota ideiak” eta zerrenda bat egin ideiekin. Hau da, dena eginda ez ematea. Egia da gauza batzuekin ezin dela egin oso itxiak direlako eta ez dituztelako aukerarik ematen. Baina beste batzuk aldatu ahal dituzu eta informazioa bilatzea eskatu, muralak eta taldeko lanak egin... nik uste dut horrekin pila bat ikasten dela, lanen bidez hain zuzen. Orduan, autonomiarekin irakastea terminoaren bidez, hori ulertzen dut nik, utzi umeari ideiak botatzen, informazioa bilatzen, hori lantzen...

**6- Irakasteko edo ikasteko orduan, zein mailataraino uzten diezu ikasleei autonomia erabiltzen? (Adibidez, proposamenak beraiei botatzen utzi, taldean lan egiteko taldekideak beraiei aukeratzen utzi...) Zer lortzen dugu honekin?**

Nik beti uzten diet, lehen esan dudana bezala, antzerkiak egiteko, abesteko, fitxak egiteko eta abar. Autonomia beti utzi behar diezu, azken finean hori garatzen baduzu nire ustez asko ikasten denez gero, errendimenduan eragin positiboak izango ditu zentsu guztietan.

**7- Nola motibatzen dituzu zure ikasleak zerbait irakastera zoazenean?**

Niri asko gustatzen zait egutegi bat ipintzea, Apirila adibidez, eta gaur zelan portatu garenaren arabera pegatina bat ipini. Hogei berde lortzen bagenituen, adibidez, sari bat lortzen genuen: pelikula bat ikusi, klasea kanpoan eman, pastel bat ekarri... Horrela motibatzen dira umeak batez ere jarrera aldetik, adi egoteko eta ikasteko.

**8- Zein mailataraino uste duzu inplikatu beharko litzatekeela familia hezkuntzarekin ikasleen errendimendua hobetzeko: etxerako lanetan laguntzen bakarrik, eskolarekin parte hartzen edo harago oraindik?**


Nik uste dut gurasoen laguntza modu batera edo bestera beti eskertzekoa dela. Orduan, hori ezinbestekoa da adin guztietan; adibidez, AMPA-n parte hartzen badute, esate baterako.

### 3. Eranskina: Komunikazio familiarren dekalogo

1. Elkarrizketa, ez da esporadikoa. Erraztasunez eman behar da, edozein girotan eta askatasunez.
2. Hitz egiteko denbora behar da eta denbora hori bilatu egin behar da seme alabei dedikatu ahal izateko.
3. Isiltzen jakitea hitz egiten jakitea bezain inportantea da. Besteei entzuten jakiteko, besteen tokian edota ikuspuntuan kokatzen jakin behar da.
4. Beharrezkoa denean eta senideen arteko konfiantza berreskuratu nahi bada, okertu egin garela onartu eta barkamena eskatu behar da.
5. Elkarrizketarako momentua bilatu behar da eta urduritasuna zein presak, alde batera utzi behar dira.
6. Arreta guztiaz entzun behar da, nahiz eta seme alabek txikikeriak kontaktzen dituztela iruditu.
7. Elkarrizketak ez du galdetegi baten itxura hartu behar seme alabak goitik behera ikertzeko. Ez zaie galdera guztiei erantzuten behartu behar. Aukera eman behar zaie gero beraiek aukeratu dezaten.
8. Ikasketak garrantzitsuak dira baina bizitza liburuak baino garrantzitsuagoa da. Ez da beti notei buruz eta ikasketei buruz hitz egin behar, ez dira helburu bakarra.
9. Helburuak ez dira inposatu behar, proposatu baizik.
10. Oreka mantentzearekin du guztiak zerikusia: askatasuna, erresponsabilitatea, exijentzia eta ulermena, seriotasuna eta umorea...

*3. Taula. Komunikazio familiarren dekalogo. (González eta Murgui, 1994) gurasoei emandako formazio saiotik moldatua.*

**4. Eranskina: Autonomian eta autodeterminazioan hezteko eredia**



4. Taula. Autonomian eta Autodeterminazioan hezteko eredia. (Alonso, 2005) moldatua.

### 5. Eranskina: Gurasoek seme alaben motibazioan eragiteko kontrolatu beharreko aspektuak

<p>a) Eskolaren inguruan eta ikaskuntzaren inguruan gurasoek esaten dietena edo egiten dizkieten komentarioak.</p>	<p>Ez da gauza bera ikasleei adibidez eskolatik bueltatzen direnean horrelako komentarioak egitea:</p> <p>X “Zelako nota ipini dizute?”</p> <p>✓ “Zer ikasi duzu gaur?”</p> <p>X “Zure klasetik lehenengoa izan behar zara”.</p> <p>✓ “Ikas ezazu ahal duzun guztia”</p>
<p>b) Etxerako lanetan laguntzeko modua.</p>	<p>Etxerako lanak egitean zailtasunak badituzte, ez da gauza bera erantzun bat edo beste bat ematea:</p> <p>X “Ekarri, nik egingo dizut”</p> <p>X “Begira, horrela egiten da”</p> <p>✓ “Zer da ez dakizuna? Irakurri altuz nik entzuteko eta pistaren bat eman ahal izateko</p>
<p>c) Gurasoek sortzen duten ingurua eta horretatik ikasteko ematen dizkieten aukerak.</p>	<p>Ikasleek ez dute eskolan ikasten bakarrik. Momentu orotan baizik. Sortzen den ingurunearen araberakoa da hau:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ipuinak edukitzea edo ez</li> <li>- Zoor joatea</li> <li>- Beste haur batzuekin edo nagusiekin jolastu ahal izatea...</li> </ul>
<p>d) Euren ekintzei ipintzen dizkieten limiteak.</p>	<p>Kasu honetan, seme alabekin negoziatu beharra dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatzeko aukerarik gabe, haurrak ez du motibazio egoki bat garatuko.</li> <li>- Limiteak ipini gabe, haurrak ez du ulertuko esfortzua beharrezkoa dela.</li> </ul>
<p>e) Jokatzeko moduarekin ematen zaien adibidea.</p>	<p>Honi esker, beste hainbat gauzen artean, baloratzeko, sentitzeko, pentsatzeko moduak transmititzen zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikasleei ezin zaie irakurtzeko grina sustatu, gurasoek telebista ikusten badute soilik.</li> <li>- Ikasleei ezin zaie jakiteko nahia garatu, gurasoei ez badiete inoiz informazioa bilatzen ikusten adibidez.</li> </ul>

5. Taula. Gurasoek seme alaben motibazioan eragiteko kontrolatu ditzaketen aspektuak. Alonso (2005) moldatua.



## 6. Eranskina: Irakasleek ikasleei jakin mina sorrarazteko adibideak

<p>“Gai honetan beroak energia moduan nola funtzionatzen duen ikasiko dugu. Horretarako, tenperaturaren eta beroaren diferentziak ikusiko ditugu, beroa nola zabaltzen den...”</p>	<p>“Hozkailuaren barruan dagoen airean beroa al dago?, ados egongo zinatekete poloetan bero asko dagoela esaten dizueten pertsona batekin? Ikus ditzagun zuen ideiak...”</p>
--	--

6. Taula. Jakin mina sorrarazteko adibidea. (Alonso, 2005) moldatua.

### Ir=Irakaslea, Ik=Ikasleak

**Ir:** Galdera bat egingo dizuet. Uste al duzue bufandak berotzen duela?

**Ik:** Badirudi baietz, izan ere neguan zehar erabiltzen dugun arropa bat da, hotz gehien egiten duen urtarooan hain zuzen...

**Ir:** Egia. Tenperatura baxuak daudenean erabiltzen dugu. Hala ere, egia den ikusteko esperimendu bat egingo dugu. Ikus dezagun... izozkailutik 20 izotz kubo hartzen baditugu, eta horietatik 10 aluminiozko paperean biltzen baditugu, eta beste 10 bufandan biltzen baditugu, zeintzuk urtuko dira lehenago?

**Ik1:** Bufandan daudenak, gehiago berotzen duelako. Aluminiozko papera hotza da.

**Ik2:** Bufandan daudenak, aluminiozko paperak hotza mantentzen duelako, eta izotza kontserbatuko du.

**Ir:** Egin dezagun esperimendua. Banatu itzazue izotz kuboak bi taldetan, mahai berdinean eta bata bestearen ondoan. Hogei minutu igaro ostean, bufanda eta aluminiozko papera ireki eta apuntatu ezazue koadernoan ikusi duzuenak.

Bete al da hasieran bota duzuen hipotesia?

**Ik:** Aluminiozko paperean egon direnak arinago urtu dira. Nola izan daiteke?

**Ir:** Bufandak egia esan, ez duelako berotzen. Beroa gure gorputzak ekoizten du, korrika egiten duzuenan nabaritu ahal duzuen bezala. Gertatzen dena, bufanda material isolatzailez egina dagoela da. Beraz, ez dio beroari igarotzen edota eskapatzen uzten. Horregatik mantentzen du bero gure gorputza. Hau ez litzateke gertatuko gure gorputzak ekoizten duen berotasuna eskapatzen utziko balu. Horregatik, izotza berotzea eragozten du, ez diolako kanpoko berotasunari barruan sartzen ustean. Ez al duzue uste interesgarria izango litzatekeela beroa ondo edo gaizki eramaten duten materialak zeintzuk diren ezagutzea?

7. Taula. Jakin mina sorrarazteko adibidea. (Alonso, 2005) moldatua.

## 7. Eranskina: Irakasleek ikasleei baliagarritasuna erakusteko estrategia

### (7. Taularen jarraipena)

**Ir:** ...Ez al zaizue iruditzen interesgarria izango litzatekeela beroa ondo transmititzen duten eta beroa ondo transmititzen ez duten materialak zeintzuk diren ezagutzea? Adibidez, nola lortu ahal zenukete neguan berotzea bat batean tenperaturak behera egiten badu eta berotasuna ematen ez duten arrokekin bazaudete?, edo, nola jaitsi ahal zenukete sukarra medikamenturik, urik eta alkoholik ez bazenute?

Gai hau ikastea oso garrantzitsua izan daiteke arazo hauek eta beste arazo asko konpontzeko. Adibidez, gure etxeko eta eskolako energiaren kontsumoa murrizteko. Izan ere, energia iturriak (ura, petrolio, ikatza, eta abar) gero eta murriztagoak dira. Horregatik esaten dugu energia aurreztu behar dugula. Eta hori egiteko bide bat, energia edota beroa gaizki garraiatzen dituzten materialen erabilera ekiditea da. Ez al duzue uste, pena merezi duela? Ba hori da gai honetan lortzen saiatuko garena.

-Saio honetan beroa garraiatzeko orduan onak eta txarrak diren materialak sailkatzen ikasiko dituzue.

-Gorputzen zehar energia kalorifikoaren hedapena ikasteko estrategia esperimentalak ikasiko dituzue ere bai.

-Gainera, neguan zuen txokolatzeko katilua bero mantentzeko edo udan zopa arinago hozteko dituzuen ezagutzak aplikatu ahalko dituzue.

Laburki, helburuak hurrengoak dira:

a) Energia kalorifikoaren garraiatzaileak diren materialak, material isolatzaileetatik desberdintzea ikasi dezazuen.

b) Energia kalorifikoa material solidoetan nola hedatzen den ezagutu dezazuen.

c) Ikastea lagunduko dizueten esperimentuak diseinatzen ikasi dezazuen.

8. Taula. Jakin mina sorrarazteko adibidea. (Alonso, 2005) moldatua.

\*Adibide honen bitartez, hiru aspektu azpimarratu behar dira. Lehenik eta behin, proposatuko den ikaskuntzaren garrantzia edo erabilgarritasuna, ikasleak arazo bat duela ikusi ostean egiten da (ezagutzen ez duen zerbait dago). Bigarrenik, erabilgarritasuna esplizitua egiten du egoera ezagunak erakutsiz, ikasleengandik gertu daudenak, ikaskuntza esanguratsu bat gertatzeko aukera emanez. Eta, hirugarrenik, lan egiten den bitartean, material garraiatzaileak desberdintzen ikasteaz gain, esperimentuak diseinatzen ikasiko dela jakinarazten da. Hau da, ikasleei ikas dezaten arrazoi bat baino gehiago ematen zaie, batzuei arrazoi batzuk interesatu ahal zaizkielako eta beste batzuei, beste batzuk.

## **8. Eranskina: Center on School, family and Community Partnerships-en printzipioak**

Gurasoen inplikazioaren printzipioan oinarritzerakoan, Center On School, family and Community Partnerships zentroak familiei euren seme alabei ikasketetan sostengatzeko, etxean giro egoki bat sortzen laguntzen die. Horrez gain, printzipio honek esaten du, eskolek familiak ezagutu behar dituztela beraien beharrizantara eta ikasleen beharrizantara egokitutako hezkuntza emateko. Ildo beretik, nahiz eta eskola guztiak desberdinak izan, eskola guztiek gurasoei beraien ezagutzak eta gaitasunak sendotzen lagundu behar dietela adierazten du euren seme alaben ikaskuntza prozesuan esku hartzeko gai izan daitezen.

Komunikazio printzipioaren bidez, zentro honek bi noranzkodun komunikazioa garatu nahi du eskolatik etxera eta etxetik eskolara doana. Komunikazio hori, eskolako programetan eta ikasleen hobekuntzetan oinarrituta dago. Horrela, eskolako programen eta ikasleen hobekuntzen arteko loturak nola handiagotu daitezkeen ikertzen du. Modu berean, eskolaren eta familien arteko komunikazioa eta kooperazioa indartzea nahi du, ikasleek beraien arrakasta izaten laguntzeko, beraien gurasoak eta irakasleak kontaktuan daudela ohartu daitezen.

Hirugarren printzipioaren bidez, hau da, boluntariotzaren bidez, Center On School, family and Community Partnerships zentroak, gurasoak edo eskolarekin parte hartu nahi duen edozein pertsona, beraien ezagutzak partekatu ahal izateko inplikatu nahi ditu, ezagutza horiekin eskolaren, irakasleen eta ikasleen ekintzei laguntzeko.

Halaber, etxeko ikaskuntzan oinarritzen den printzipioaren bidez, familiari ideiak ematen zaizkie euren seme alabei etxeko lanetan edota beste hainbat eskolako ekintzetan nola lagundu ahal dieten jakiteko. Printzipio honetako programak edota ariketak beraz, familiari ikasleen lan akademikoari buruz informazioa ematean oinarritzen dira.

Ildo beretik, erabakiak hartzeko printzipioa barne hartzen dituzten programen eta ariketen bidez, familiei eskolako erabakietan parte hartzen usteko gaiak lantzen dira. Batez ere, familiari eta beraien seme alabei eragiten dieten erabakiak direnean. Honen barnean, komite desberdinetan parte hartzea eta eskola hobetzeko guztiei ideiak emateko aukerak baimentzea jorratzen da ere bai.

Azkeneko printzipioaren bidez, hau da, komunitatearekin kolaborazioaren bidez, komunitateko baliabideak eta zerbitzuak identifikatu eta eskolan integratu nahi dira, bertako programak, familien eta ikasleen ikaskuntza hobetzeko helburuarekin. Beraz, zentron, familien, komunitateen, pertsonen eta organizazioen arteko kooperazioa inplikatzan duten ariketak jorratzen dira. Kooperazio hori bi noranzkoetan lantzen da: komunitateko baliabideak ikasleengana bideratzen dira, eta era berean, irakasleek, ikasleek eta familiek komunitatearekin kolaboratzen dute (Suárez et al., 2014).